

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 33/2019, FORU DEKRETUA, apirilaren 2koa. Honen bidez, 2019. urtean Bizkaiko kultur ondare etnografikoa zaindu, ikertu eta zabaltzeko jarduerak egiteko foru diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira.**

Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak, 102.2 artikuluan ezarri du foru aldundiek urtero onetsiko dituztela kalifikatutako eta inbentariatutako kultura-ondasunen kontserbazio, hobekuntza, zaharberrikuntza eta indusketetarako laguntzen egitarauak; egitarau horietan ezarriko da, hain zuzen ere, zein laguntza emango diren, baita horiek esleitzeko irizpideak eta baldintzak ere.

Ildo horretan, Euskara eta Kultura Foru Sailari dagokio gure lurralde historikoan ondare etnografikoa sustatu eta babestea, baita ere Bizkaiko legatu historiko eta kulturalaren agerkari guztiak ezagutzea, kontserbatzea, zaintzea eta zabaltzea eta hura hurrengo belaunaldiei zuzen transmititzeko behar diren jarduera eta programa guztiak egitea.

Esparru arau-emaile horren barruan, foru dekretu honek, Bizkaiko ondare etnografikoaren arloan 2019. urtean egiten diren jarduerak egiteko diru-laguntzak ematea arautzen du, eta publikitate, lehia eta objektibotasun printzipioetan oinarritzen da.

Kultur ondare etnografikoa zaindu, ikertu eta zabaltzeko jarduerak egin daitezten sustatzea Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren helburuetariko bat da. Jarduera horien xedea da kultur ondare etnografikoa zaintzen eta zabaltzen laguntzea, hiritarrak aberastu eta sentsibilizatzeko.

Ondare etnografikoa honako hauek osatzen dute: Bizkaian historian zehar erabilitako leku, higiezin eta instalazioek, forma tradizionalen adierazgarri diren ezaugarri arkitektonikoak eta paisaiaren arlokoak dituztenek; Bizkaiko tradizio kulturalen edo jarduera sozio-ekonomiko tradizionalen adierazpen historiko diren ondasun higigarriek, eta iraganetik jasotako jarduera eta ezagutzek, bizkaitarren berezko kulturaren eta bizimoduen forma esanguratsuak eta adierazpide direnek; ondare inmaterialak, hau da, gure arbasoengandik jaso ditugun eta bizirik irauten duten kultur adierazpen ukiezinak.

Kultur ondare etnografikoa zaindu, ikertu eta zabaltzeko interesa duten, erakunde, elkarte eta kultur eragileen ekimenak sustatzeak laguntzen du, lehengoengandik jasotako kultur aberastasuna eta hura transmititzeko estekak gordetzen ez ezik, gure ekoizpen kulturala aberasten eta Bizkaiaaren kultur sarea sendotzen.

Foru dekretu honek erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu. Printzipio horiek jasota daude Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Foru dekretu horretan xedatutakoa kontuan hartuta, txosten hauek eman dira foru dekretu hau egin denean:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezotasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailletako gaiari buruzko foru dekretuen proiektuak onar ditzan.



Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara eta Kultura Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2019ko apirilaren 2ko bileran aztertutik, honako hau,

XEDATZEN DUT:

**Artikulu Bakarra.—Diru-laguntza foralen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onestea**

Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2019. urtean, Bizkaiko ondare etnografikoari buruzko jarduerak egiteko Euskara eta Kultura Sailak emango dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira. Ondoren jasotzen da oinarrien eta deialdiaren testua.

I. TITULUA

**XEDAPEN OROKORRAK**

**1. oinarria.—Diru-laguntzaren xedea**

1. Hauek dira Foru dekretu honen arabera diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak:
  - a) Xede nagusizat Bizkaiko kultur ondare etnografikoa duten biltzarrak, jardunaldiak, mintegiak edo ikastaroak egitea.
  - b) Bizkaiko ondare etnografikoari buruzko ikerketa, dokumentazioa, interpretazioa eta azterlana.
  - c) Bizkaiko ondare etnografikoaren katalogazioa edo erregistroa.
  - d) Bizkaiko ondare etnografikoa artatu, berreskuratu edo hari balioa ematea.
  - e) Bizkaiko kultur ondare etnografikoaren zabalkundea, argitalpena eta hedapena.  
Diru-laguntzarako eskabidean aurkeztutako proiektuak 2019ko ekitaldiaren barruan burutu beharko dira.
2. Foru dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira honako hauek:
  - a) Hartzaile talde zehatz batentzat bakarrik diren jarduerak, adibidez, diru-laguntza eskatu duen erakundeko kideentzat soilik bada.
  - b) Helburutzat hauetakoren bat duten kultur jarduerak edo haiei zuzenean lotuak direnak:
    - 1) Arte plastikoak, ikus-entzunezko sorkuntza, ekoizpen editoriala eta literatura-sorkuntza.
    - 2) Hezkuntza.
    - 3) Gizarte ongizatea.
    - 4) Ingurumena.
    - 5) Gazteak, aisialdia, kirola eta astialdia.
  - c) Ikasketa bidaiak, ibilaldiak edo haien antzekoak direla-eta egiten diren jarduerak.
  - d) Zuzenean edo zeharka, Bizkaiko Foru Aldundia edo beste herri administrazio batzuk egiten ari diren jarduerak edo egitea aurrez ikusita daudenak.
  - e) Sexuaren araberako diskriminazioa egiten duten jarduerak edo proiektuak.
3. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak izango dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten diren gastuak, baina diru-laguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-prezioa ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.



Honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- a) Ekipo-ondasunak erostea, baldin eta haien amortizazioa luzeagoa bada jarduerak egiteko dekretu honetan zehaztutako epea baino.
  - b) Jarduera egiten den lokalaren edo azpiegituraren amortizazio gastua edo kostua, bai eta informatikako zerbitzuei eta/edo euskarriei lotutako gastuak ere.
  - c) Banku-kontuen zorren interesak.
  - d) Interesak, gainordainak eta administrazio-zehapenak eta zehapen penalak.
  - e) Prozedura judizialen gastuak.
  - f) Oro har, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikulua berariaz kanpo uzten dituenak.
4. Foru dekretu honen helburua da eskatzaileen ekintzak lagundu eta osatzea; ez dira inoiz finantzatuko jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak.

## **2. oinarria. — Erakunde onuradunak**

1. Foru dekretu honetan araututako diru-laguntzen onuradun izan daitezke Bizkaiko Lurralde Historikoko duten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak, baldin eta haien helburua Bizkaiko kultura-tradizioekin eta ondare etnografikoarekin lotuta bada, diru-laguntza ematea justifikatzen duen jarduera bat egitea aurrez ikusi badute eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako egoeretako batean ez badaude, eta, dagozkien erregistroetan izena emanda badaude.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean egiaztatu beharko dira betekizun horiek guztiak. Halaber, prozeduran zehar ere bete beharko dira, diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu arte.

2. Horrez gainera, pertsona juridikoek ezin dezakete diru-laguntza hauen deialdian parte hartu eta ezin daitezke onuradun izan baldin eta:

- a) Berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik zehapen irmoa izan badute administrazio-bidean, edo lan-arloan edo zigor-arloan, zehapenak ezartzen duen aldian.
- b) Beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.
- c) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen III. tituluaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte.

## II. TITULUA

### ARAUBIDE JURIDIKOA

## **3. oinarria. — Araudi aplikagarria**

Dekretu honetan aurreikusi gabeko gaietarako aplikagarriak izango dira Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzei buruzko Araudia, bai eta, osagarri gisa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean eta bere izaeraren zioz aplikagarri izan daitezkeen beste edozein xedapen arauemaile ere.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarreraren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo diru-laguntzetatik badator, betiere guztienez 5.000 euro badira.

**4. oinarria.— Arau-hausteak eta zehapenak**

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. tituluan xedatutakoa ere.

**III. TITULUA  
PROZEDURA****5. oinarria.— Eskabideak aurkezteko lekua eta epea**

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14 artikulua arabera, diru-laguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira: <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

2. Eskabideak aurkezteko epea foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2019ko maiatzaren 10ean amaituko da (egun biak barne)

**6. oinarria.— Eskabidearekin batera erantsi behar diren agiriak**

1. Eskabideak aurkezteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan bete eta aurkezteko dauden eredu espezifikoak erabili behar dira <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat.

2. Dokumentazio orokor eta espezifiko hau erantsi beharko da:

- a) Erakunde eskatzailearen estatutuen edo eraketa-eskrituren kopia.
- b) Erakunde eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren kopia, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak emandakoa.
- c) Dagokion erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria.
- d) Banku-helbideraketaren fitxa, alta edo aldaketaren bat bada bakarrik.
- e) Jardueraren edo proiektuaren txosten zehaztua. Dokumentu horretan, diru-laguntza jasotzen duen jarduera gauzatzeko gehieneko epeak argi jarri behar dira, eta epe horiek ezin izango dute 2019ko abenduaren 31 gainditu. Gainera, txosten honetan, jarri behar dira foru dekretu honen 9. oinarriak diru laguntza emateko zehazten dituen irizpideak justifikatzeko gainerako aspektuak.
- f) Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 2. artikulua aintzat harturik, erakundeak urtean aurreikusten dituen sarrerak, guztira.

3. Eskabide bakoitzak Bizkaiko kultur ondare etnografikoari buruzko jardueraproiektu bakarria izango du.

4. Eskabide hau sinatuta baimena ematen zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako Foru Sailari Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak eskatzeko, Diru-laguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 21.3 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

**7. oinarria.— Eskabideak zuzentzea eta hobetzea**

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo Foru dekretu honetan eskatutako agiriakoren bat falta badute, orduan, erakunde interesdunari errekerimendua egingo zaio, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Era berean, jakinaraziko zaio ezen hala egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

2. Edonola ere, Euskara eta Kulturako Foru Sailak aurkeztzen diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

**8. oinarria. — Diru-laguntza emateko prozedura**

Diru-laguntzak norgehiagoka sistema erabiliz, hau da, aurkeztutako eskabideak alderatuko dituen epaimahai kalifikatzaile bat eratuz emango dira; epaimahai horrek, 9. oinarrian ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta, aurkeztutako eskabideen arteko lehentasun-ordena ezarriko du, eta foru diru-laguntzak puntuaziorik altuenak lortu dituztenei emateko proposamena aurkeztuko du, betiere aurrekontu partidan ezarritako zenbatekoa muga izanik.

**9. oinarria. — Diru-laguntzak ebaluatzeko irizpideak**

1. Diru-laguntzen eskabideen ebazpen proposamena egiteko eta diru-laguntzen zenbatekoa ezartzeko, epaimahai kalifikatzaileak, gehienez, 100 puntu emango ditu, jarraian adierazten diren irizpideak eta haien haztapena kontuan hartuta:

- a) Esku-hartzeak ondare etnografikoaren ikuspegitik duen kalitatea eta interesa. Horregatik, gehienez 30 puntu emango da.

Diru-laguntzaren xede den esku-hartzearen interesak eta kalitateak beraren kultur balioei egiten die erreferentzia eta, bereziki, ondare etnografikoaren kultur balioei. Ondorioz, helburu hauetako bat duten ekimenak baloratuko dira: desagertzeko arriskuan dagoen ondare elementu bat edo balio etnografikoko jarduera edo memoria bat kontserbatzea, ikusararazi behar diren gizarte-taldeei buruzko ondarea edo galtzeko zorian dagoen ondare etnografiko bat ikertu, katalogatu edo hedatzea. Gehieneko puntuazioaren barruan (30 puntu), interes gutxiagokotzat jotzen dira desagertutako jarduerak birsortzeko jarduketa-proiektuak eta ondare etnografiko ezagunagoak hedatzea helburu dutenak, haien balioa ez baita gehitzen proposatutako jardueraren bidez.

- b) Jardueraren elementu eraberritzaileak. Horregatik, gehienez 20 puntu emango da. Irizpide horren barruan, gai-berrikuntzaren arloko elementuak baloratuko dira, kontuan hartuta gai-eremu bereko antzeko irismeneko beste jarduera batzuk dauden, bai eta, berrikuntza metodologikoa ere. Azken horrek diru-laguntzaren xede den jarduera tratatu, ikertu edo hedatzeko metodologia aplikatuei egiten die erreferentzia.

Puntuaziorik altuenak emango zaizkie gai-eremu berritzaileak eta ikusararazi behar diren gizarte-taldeen arloa hartzeagatik nabarmentzen diren ekimenei. Berritzaileak izango dira gai-eremu horietan ez dagoelako ekarpen bibliografikorik, ez antzeko dokumentaziorik. Halaber, hain ohikoak ez diren ondare etnografikoaren alderdiei heltzen dieten ekimenek jasoko dituzte puntuaziorik altuenak. Puntuazio baxuagoak jasoko dituzte ondare etnografikoaren ohiko alderdiak azpimarratzen dituzten ekimenek (tokiko eremuan modu trinkoagoan egiten badute ere), batere berritzaileak ez diren metodoak erabiltzen dituzten ekimenek (balio etnografikoari buruzko informazio-metaketa tradizionala) eta kudeaketa-programa berezirik ez duten hedapen-proiektuek.

- c) Jarduerak kanpoan dituen oihartzuna eta zabalkundea. Horregatik, gehienez 20 puntu emango da.

Diru-laguntzarako proposatutako jardueraren oihartzuna eta balizko hedapena baloratuko dira, bai jarduerak har dezakeen lurralde-eremuari eta gizarte-zerrendari dagokienez, bai proposamenaren onuradunen kopuruari eta iraunkortasunari dagokienez. Hala, kalifikaziorik altuenak Bizkai osoa ikergai duten ekimenei edo zabalkundearen hartzaileak publiko zabala eta inklusiboa duten ekimenei emango zaizkie.

- d) Jardueraren erantzulearen eta egileen prestakuntza-maila pertsonal, profesional edo teknikoa. Horregatik, gehienez 20 puntu emango da.

Esku-hartzearen jarduera burutzen duten arduradunen prestakuntza pertsonal, profesional edo teknikoa baloratuko da. Horretarako, proposatutako jarduera ondo burutzeko ahalmena neurtuko da, aurretiko antzeko esperientzietan metatutako gaitasunetik abiatuta. Curriculum akademikora mugatu beharrean, norberaren



prestakuntzari erreparatuko zaio. Horretarako, aurretik burututako jardueren kalitatea eta kantitatea kontuan hartuko dira, bai eta proposatutako jardueraren xede den materiari lotuta egindako ibilbidea ere. Izan ere, aurretiko prestakuntza horrek diru-laguntzaren xede diren ekimenak ondo burutuko direla bermatuko du.

- e) Proiektuan lanpostu kualifikatueta edo erantzukizuna dakartenetan jardungo duten emakumeen kopurua, eman ahal den kopuru osoaren 5 puntu gehienez.
- f) Entitate eskatzaileak emakume eta gizonen berdintasunerako politikak edo jarduketak egiten duen ekimena, konpromisoa edota ibilbidea, eman ahal den kopuru osoaren 5 puntu gehienez.

2. Epaimahai kalifikatzailearen iritziz gutxienez 70 puntu lortzen ez dituzten proposamenak ez dira onartuko.

3. Diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da, hain zuzen ere, aurkeztutako proiektuak duen aurrekontuaren arabera.

4. Proiektua eta aurrekontua benetan diru-laguntza jaso dezaketen jardueri dagozkiela egiaztatu ondoren, edo, behar izanez gero, zenbatzekoak ez diren gastuak eta gaidikinak kendu eta gero, diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da. Horretarako, epaimahaiak eskabideen hurrenkera finkatuko du, eta diru-laguntzak honela emango dira: puntuazio altuagoa lortu duten eskabideek diru-laguntzaren portzentaje handiagoa izango dute.

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa aurkeztutako proiektuaren aurrekontu araztuaren %80 izango da, ezin finantza daitezkeen kontzeptuen arazketak egin ondoren, eta inola ere ez da izango hamabost mila (15.000) euroko zenbatekoa edo erakunde onuradunak eskatutako zenbatekoa baino handiagoa.

#### **10. oinarria. — Aholkularitza**

Foru dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko beharrezkoa den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Ondarearen Zerbitzuak. Horretarako interesdunen eskura dago <http://www.bizkaia.eus/laguntzaileOndarea> web orrian.

#### **11. oinarria. — Epaimahai kalifikatzailea**

1. Epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko. Epaimahaikideak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako foru diputatuak izendatuko ditu, foru agindu bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da.

2. Epaimahai kalifikatzaileak, diru-laguntzak emateko irizpideak kontuan hartuta, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Euskara eta Kulturako foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan.

#### **12. oinarria. — Ebazpena**

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan xedatutakoa betetz, deialdi honetan, interesdunei ez zaie, lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena eman, eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baita jaso eta kontuan hartuko.

2. Deialdia ebatzi baino lehen, Kultura Ondarearen Zerbitzuak egiaztatuko du eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela. Horren egiaztapena egin ondoren, eskatzailearen batek betebeharrak horietako bat, edozein, ez duela betetzen ikusten bada, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan. Hori egiten ez badu, eskabidean atzera egindakotzat joko dela ohartaraziko zaio.

3. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hiru (3) hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Euskara eta Kultura Saileko foru diputatuak emango du ebazpena, epaimahai kalifikatzaileak proposamena eginda.



Epe hori eskabideari buruzko ebazpen adierazirik eman gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, geroago ebazpen adierazia eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua deialdi publiko honetarako eskabidea aurkeztu duten interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Egoitza elektronikoa bertaratzearen bidez ere jakinaraziko zaie interesdunei.

Ebazpenean, berariaz azalduko da foru agindu horrek administrazio-bidea amaitzen duela eta haren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal diola interesdunak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Saileko foru diputatuari, foru agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete (1) pasatu baino lehen, edo, bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakeela, era berean zenbatutako bi (2) hilabeteko epea pasatu baino lehen.

### **13. oinarria. — Bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin**

1. Foru dekretu honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazioek edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituzten diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

2. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretakoren bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren Foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin bat eginda, inolaz ere ezin baita izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

## IV. TITULUA

### **DIRU-LAGUNTZAREN KUDEAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA**

#### **14. oinarria. — Diru-laguntza ordaintzea**

1. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo hamar (10) egun baliodunetan onuradunak ez badio beren beregi eta idatziz uko egiten, diru-laguntza onartu duela ulertuko da.

Deialdi honen ebazpena dela-eta onuradunen batek uko egiten badio emandako diru-laguntzari, horrek ez du berekin ekarriko ebazpenean jasota dauden eta onuradunei jakinarazi zaizkien diru-laguntzen zenbatekoak handitzea.

Diru-laguntza eman dela Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, hamar (10) egun baliodun igaro eta berehala, Kultura Ondarearen Zerbitzuak hari dagokion zenbatekoaren ordainketa izapidetuko du Ogasun eta Finantzen Foru Sailean, eta onuradunei ez zaie horretarako inolako bermerik eskatuko.

2. Diru-laguntzen ordainketa egin baino lehen, onuradunek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneraturik dituztela egiaztatuko da.

Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek betebehar horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio ezen horrela egiten ez badu emandako diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

#### **15. oinarria. — Diru-laguntza onuradunaren borondatez itzultzea**

1. 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena), onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntza, foru erakundeak aurretik hala eskatu gabe.



Halakoetan, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatuko ditu, aipatutako 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

2. Onuradunak berak eskatuta foru diru-laguntza itzultzeko ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori Kultura Ondarearen Zerbitzuko bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutun horretan honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia, itzuli behar den diru-laguntzari erreferentzia eginda.

3. Diru-laguntzaren erakunde onuradunak finantza-erakunde batean ordainketa egin ondoren, ordainketaren kopia edo diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio Euskara eta Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuari.

#### **16. oinarria.— Justifikazioa egiteko epea eta era**

Foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen onuradunek honako konpromiso hauek bete beharko dituzte:

1. Jarduera 2019ko ekitaldian egin behar dute oso-osorik.
2. Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzei buruzko Erregelamenduaren 60. artikuluekin bat etorrira, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailean justifikatzea jarduerak egin direla, laguntza ematea eragin zuten baldintzak bete direla, eta diruz lagundu den proiektuari dagokion gastua nola aplikatu den ere bai. Horretarako, honako agiri hauek aurkeztu behar dira, egoitzan, 2020ko otsailaren 28ra arte (egun hori barne):
  - a) Diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-txostena, egindako jarduerak eta lorturiko emaitzak adierazita.
  - b) Egindako jardueren kostua justifikatzen duen txosten ekonomikoa, honako alderdi hauek jasotzen dituena:
    - 1) Proiektuari egotzitako sarreraren eta gastuen egoera-orria, egoitzan dagoen ereduaren arabera.
    - 2) Gastu-partida bakoitzean, diru-laguntza jaso duen jardueraren gastuen zerrenda, egoitzan dagoen ereduaren arabera.
    - 3) Diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten diru-laguntzen, laguntzen, sarreraren edo baliabideen xehetasuna, eta, hala bada, finantzaketa propioarena ere bai. Xehetasun hori egoitzan dagoen ereduaren arabera egingo da.
3. Diruz lagundutako gastuaren aurrekontua justifikatzeko, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, foru diru-laguntzaren erakunde onuradunak egiaztagiria aurkeztu behar ditu, gutxienez hiru hornitzaile egin dizkioten eskaintzak justifikatzeko, baldin eta administrazio-kontratuzko araudian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen badira, salbu eta kontratuaren ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago halakorik egin dezakeen erakunde nahikorik edo gastua eskabidea aurkeztu aurretik egin bada.

Aurkeztu diren eskaintzen artean aukeratzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera jokatu da. Hala, proposamen ekonomikorik onena aukeratu ez denean, beren-beregi justifikatu beharko da inguruabar hori, memoria baten bidez.
4. Bizkaiko Foru Aldundiak berak egoki irizitako laginketa-teknikak aplikatuko ditu frogagiriok egiaztatzerakoan, diru-laguntza egoki aplikatzeari buruzko zentzuzko ebidentziak lortu ahal izateko. Eta, horretarako, onuradunari eskatu ahal izango dio bidaltzeko aukeratutako gastu-egiaztagirien kopia, bai eta haiek ordaindu izanaren egiaztagiria ere.



**17. oinarria. — Diru-laguntzaren onuradunaren beste betebeharrak**

Onuradunak betebeharrak hauek ere izango ditu:

- a) Erakunde emaileari egoitzaren bidez jakinarazi behar dio ea diru-laguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibo edo subjektibok aldaketarik izan badu.
- b) Erakunde emaileari egoitzaren bidez jakinarazi behar dizkio jarduera hasteko eta amaitzeko datak, eta erraztasunak eman behar dizkio, diruz lagundutako jardueraren kontrol-, jarraipen- eta ikuskapen-funtzioak edo -ahalmenak gauzatzeko.
- c) Euskara eta Kulturako Foru Sailari laguntza ematea eskatzen bazaienean, eta egin beharreko proiektuaren gaineko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).
- d) Euskara eta Kulturako Foru Sailak, Ogasun eta Finantzen Foru Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jardueren menpe jartzea.
- e) Diru-laguntza eman ondoren editatutako material guztietan eta jendaurreko agerpen guztietan, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa agerrarazi behar da; horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-irudian ezarritako elementuak baliatuko dira, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da hitzez hitz:

«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».

Euskara hutsez garatutako proiektuetan, gainera, Euskararen Txantxangorriaren irudia agertu behar da.

Jarduerak justifikatzeko memorian, argazki bidez edo beste erreprodukzio-bide baten bidez egiaztatu behar da nola zabaldu den publikoki Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundutako esku-hartzeari emandako laguntza.

- f) Bizkaiko Foru Aldundiari dohainik eta esklusibotasunik gabe lagatzea aurkeztutako dokumentazioan dagoen informazio tekniko eta grafikoa erabiltzeko eskubidea, informazio hori zabaltzeko edo/eta argitaratzeko, edozein baliabide edo formatu bibliografiko, ikus-entzunezko edo informatiko erabiliz edo teknikaren erabilerak ahalbidetzen duen beste edozein erabiliz.
- g) Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizio, sarbide, kontratazio eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonal, lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzearen arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikal, ordezkaritza eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.
- h) Zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.
- i) Diruz lagundutako proiektua gauzatzen den bitartean, ez erabiltzea hizkera sexistarik dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (idatzizkoetan zein digitaletan), eta pertsonen buruzko edozein estatistikatan datuak sexuaren arabera bereiz jasotzea, hala ezartzen baitu arlo horretan gorde behar diren printzipio nagusiak jasotzen dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3 artikulua.
- j) 250 langiletik gora izanez gero, egiaztatu behar da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Legean ezarritakoarekin bat datorren plan bat dutela emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta benetan aplikatzen dutela. Hau, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunera-



ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 46 artikulua ezartzen duen arabera. Horretarako, betebeharrak hori betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute justifikazioarekin batera.

- k) Plantillan hamabost langiletik gora izanez gero, bermatu beharko dute neurriak hartzen dituztela lan-arloan emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, hari aurre egiteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatzeko eta desagerrarazteko, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko. Horretarako, betebeharrak hori betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute justifikazioarekin batera.
- l) Bizkaiko Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Diru-laguntzen Erregelamenduaren 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerakoak.
- m) Deialdi honen ondorioetarako, foru diru-laguntzaren onuradunek maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 53. artikuluan (dekretu horren bidez, azpi-kontratazioaren arloko diru-laguntzen Erregelamendua onesten da) araututako betebeharrak eta debekuak bete behar dituzte. Diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren %90 azpikontratatu ahal izango da gehienez.

#### **18. oinarria. — Itzultzea**

1. Jasotako diru-laguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta ez badira betetzen aurreko oinarrietan, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo foru arau hori garatzen duen Erregelamenduan jasotako betebeharratariko bat edo batzuk. Besteak beste, honelakorik gertatzen bada:

- a) Frogatu beharra betetzen ez bada.
- b) Emandako diru-laguntzari dagokion helburua betetzen ez bada.
- c) Diru-laguntza justifikatzen ez bada edo Foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera nahiko edo behar bezala justifikatzen ez bada, justifikatu ez den diru-laguntzaren zatia eta sortutako berandutze-interesak itzuli beharko dira, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuak horretarako eskaera egin ondoren.
- d) Proiektua egiteko epea betetzen ez badu, jasotako diru-kopurua eta sortutako berandutze-interesak itzuli beharko ditu erakunde onuradunak, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiak horretarako eskaera egin ondoren.
- e) Onuradunak diru-laguntza lortu badu, nahiz eta horretarako baldintzak bete ez.
- f) Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egitea edo eragozpenak jartzea.
- g) Foru dekretu honetan ezarritako gainerako kasuak betetzen ez badira.

2. Diru-laguntza jaso duen jardueraren kostua baino finantziario gehiago jasotzen bada, diru-laguntza itzuli beharko da.

#### **19. oinarria. — Aurrekontuko partida**

1. Deialdi honetako diru-laguntzak emateko 2019. urtean indarrean dagoen aurrekontu-muga honako hau da:

Hogeita hamar mila euro (30.000 euro), 0404 G 336107 45100 0000-2007/0157, aurrekontu partidari lotuta, 2019ko ekitaldian.

2. Deialdiko eskaera guztiak ebatzi ondoren, diru-laguntzetarako guztira emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa balitz, gastu-baimenaren ezeztapena tramitatuko litzateke, soberan den zenbatekoan.



## AZKEN XEDAPENAK

**Azken Xedapenetako Lehenengoa. — *Arauk emateko gaikuntza***

Ahalmena ematen zaio Euskara eta Kulturako foru diputatuari, foru dekretu honetan xedatutakoa ondoen garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken Xedapenetako Bigarrena. — *Indarrean jartzea***

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2019ko apirilaren 2an.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,  
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia,  
UNAI REMENTERIA MAIZ